

BEZEROAREKIKO HARREMANA

Bezeroekiko harremanari dagokionez, komunikazioa harremanaren oinarria da. Ezinbesteko elementua bihurtu da edozein enpresarentzat. Gainera, bezeroaren behar eta nahiak entzutea eta ulertzea funtsezkoa da.

Gure salmenta webgunearen bidez izango da eta erabat automatizatua egongo da. Webguneak erosketak esperientzia erraza eta segurua eskainiko du, ordainketak eta bidalketak modu arinean kudeatuz. Salmenta bertatik egitea pentsatu dugu bezeroarentzako erosoagoa delako ez baita etxetik mogitu behar.

Denda fisikotan ere salduko dugu, baina gu eta bezeroarekiko harremana ez da zuzena izango, hau da, ez da aurpegiz aurpegikoa izango guk ez baitugu denda horietan lan egingo.

Produktuak modu erakargarri eta informatuan aurkeztuko dira, eta informazio digitalerako QR kodeak erabiliko dira. Bezeroen fidelizazioa sustatzeko, erosketak fisikoek deskontuak edo promozioak eskainiko dituzte hurrengo erosketetarako.



Bezeroarentzako arreta zerbitzua ere gure harremanen zati nagusia izango da. Zalantzak argitzeko edo arazoak konpontzeko, arreta pertsonalizatua eskainiko dugu bezeroak gertutasuna eta konfiantza sentitzeko. Laguntza hori, bai internet bidez bai aurrez aurre izango da, baina laguntza pertsonala denean harreman hori ez da gurekin izango, baizik eta, mekanikoa eta bezeroaren artean.

bezeroarekiko harremanarekin jarraituz, komunikazioa zuzena izango da. Haien iritziak eta oharrak entzun eta baloratuko ditugu, gure produktuak eta zerbitzuak hobetzeko eta, azken finean, haien konfiantza eta leialtasuna irabazteko. Gure bezeroei balio eta arreta pertsonalizatua eskaintzeak gure arrakastaren oinarria izango du.

Eraldaketa digitala ere gure estrategiaren parte izango da, inteligentzia artifizialean oinarritutako erantzun sistema bat garatuko dugu, bezeroei denbora errealean laguntzeko gai izango dena. Modu honetan, arreta arinago eta zehatzagoa eskainiko diegu eta bezeroak momentuan izango du behar duen erantzuna.

Amaitzeko, bezeroen iritziak aztertuko ditugu, gure eskaintzak eta zerbitzuak hobetzeko eta egokitzeko. Horrela, bezeroen beharrak aurreikusten eta gure konpromisoa indartzen jarraituko dugu.